

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN SERBITZUA

BEZaren eta Zerga Bereziaren Atala

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuaren 504/2021 Foru Agindua, abuztuaren 13ekoa, zeinaren bidez onartzen baita 035 eredua, «Subjektu pasibo ez diren pertsoneri zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboeri aplikatzeko araubide berezietan sartutako eragiketen hasiera, aldaketa edo amaieraren aitortpena» izenekoa, eta eredu hori aurkezteko modua eta prozedura ezartzen baitira

Foru agindu honen xedea da 035 eredua, «Subjektu pasibo ez diren pertsoneri zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboeri aplikatzeko araubide berezietan sartutako eragiketen hasiera, aldaketa edo amaieraren aitortpena» izenekoa, onestea, ekainaren 8ko 4/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak Balio Erantsiaren gaineko Zergan sartutako aldaketak garatzeko. Dekretu horren bidez, hauen transposizioa onesten da: batetik, Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 (EB) Zuzentarauarena, zeinak aldatzen baititu 2006/112/EE Zuzentzaraia eta 2009/132/EE Zuzentzaraia, zerbitzuak emateko eta ondasunak urrutitik saltzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko zenbait obligaziori dagokienez, eta, bestetik, Kontseiluaren 2019ko azaroaren 21eko 2019/1995 (EB) Zuzentarauarena, zeinak aldatzen baitu 2006/112/EE Zuzentzaraia, ondasunen urrutiko salmentei eta ondasunen barne entrega batzuei buruzko xedapenei dagokienez.

Aurreko zuzentzarauen transposizioak, zeinen arauak 2021eko uztailaren 1etik aurrera baitira aplikatzekoak, berekin ekarri du aldaketa handiak sartzea bai azken kontsumitzaileek oro har internet eta plataforma digitalen bidez eskuratu eta hornitzaileak beste estatu kide batetik edo hirugarren herrialde edo lurralde batetik bidaltzen dituen ondasunen entregan tributazioaren eremuan, baita, zerga egitatearen lokalizazio erregelen arabera, zerbitzu prestazioak BEZari lotuta gelditzen diren estatu kidean finkatuta ez dauden enpresaburuek azken kontsumitzaileen alde egindako prestazioen tributazioaren eremuan.

Dena den, estatu kide bakarrean kokatuta dauden eta, noizbehinka, beste estatu kide batera ondasunen entregak egiten dituzten edo beste estatu kide batzuetan kokatutako azken kontsumitzaileei zerbitzu prestazioak egiten dizkieten mikroenpresen kasuan, urteko 10.000 eurorainoko atalase komun bat ezarri da Europar Batasunean. Hala, zenbateko hori gainditzen ez den bitartean, ondasunen entregak eta zerbitzu prestazioak hornitzailea kokatuta dagoen estatu kideko BEZari lotuta egongo dira. Nolanahi ere, enpresaburu edo profesional horiek hauta dezakete eragiketa horien kontsumoko estatu kidean tributatzea, nahiz eta aipatutako atalasea ez gainditu.

Bestalde, administrazio zamak murrizteko eta zergaren bilketa errazteko, leihatila bakarreko araubide berezi berriak sartu dira, eta araubide horiek aplikatzea aukeratu ahal izango dute eragiketak lotuta gelditzen diren estatu kidean oro har finkatuta ez dauden enpresaburu eta profesionalak Erkidegoan finkatutako azken kontsumitzaileen alde egindako ondasunen entregatik eta zerbitzu prestazioengatik sortutako BEZa aitortu eta likidatzeko.

Horrela, araubide berezi berri bat sartzen da, «Batasuneko araubidea» deitutakoa, hauei aplikatzeko: Erkidegoan ezarrita dauden enpresaburuak edo profesionalak emandako zerbitzuei, enpresaburu edo profesional horiek kontsumoko estatu kideak kanpo ezarrita daudenean eta zerbitzua enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duten hartzaileei ematen zaizkienean; ondasunen Europar Batasunaren barruko urrutiko salmentei, eta, azkenik, Erkidegoan finkatu gabeko hornitzaile batek ondasun horiek azken kontsumitzaileari entregatzea errazten duten interfaze digitalen titularrei egotzitako ondasunen barne entregei.

Horrez gainera, beste araubide berezi bat ezartzen da, «inportazio araubidea» deitutakoa, hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei aplikatzeko. Hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentak egiten dituzten enpresaburuak edo profesionalak izango dute araubide berezia aplikatzeko aukera, zuzenean edo Erkidegoan ezarritako bitartekari baten bidez, baldintza jakin batzuetan, betiere bidalketen balio intrinsekoa 150 eurotik gorakoa ez denean. Salbuespena dira Zerga Bereziei lotutako produktuak.

Leihatila bakarreko araubide berezi horiei esker, enpresaburuak edo profesionalak autoliki-dazio bakar baten bitartez ordaindu ahal izango dute Erkidegoan (kontsumoko estatu kidean) hiruhileko edo hil natural bakoitzeko egin diren eta kasu bakoitzean araubide berezia aplikatzen zaien eragiketa guztiengatik sortutako BEZa. Autoliki-dazio hori bide elektronikoz aurkeztuko da aukeratu den edo araubidea aplikatzeko den estatu kideari (identifikazioko estatu kideari) dagokion Zerga Administrazioan.

Ondorio horietarako, subjektu pasiboak bere jarduera ekonomikoaren egoitza ezarrita duen lurraldea joko da identifikazioko estatu kideak, edo, bere jarduera ekonomikoaren egoitza Erkidegoan ezarrita ez badu, establezimendu iraunkor bat dueneko estatu kidea.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, zentsu aitortpenak egin behar dituen pertsonaren edo erakundearen egoitza fiskala non dagoen, hango Administrazioari aurkeztu behar zaizkio aitortpen horiek, bakoitzaren arautegiaren arabera.

Hori dela eta, formulario bat onetsi behar da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretuaren IX. tituluaren XI. kapituluaren ezarritako araubide bereziak aplikatzea aukeratzen duten enpresaburuak edo profesionalen erregistroa egin ahal izateko, jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkor bat edo gehiago Arabako Lurralde Historikoan dutelako, lurralde hori izendatzen dutenean identifikaziorako leku gisa.

Horregatik, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 035 eredia onestea, «Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboak aplikatzeko araubide berezietan sartutako eragiketen hasiera, aldaketa edo amaieraren aitortpena» izeneko

035 eredia, «Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboak aplikatzeko araubide berezietan sartutako eragiketen hasiera, aldaketa edo amaieraren aitortpena» izeneko, onesten da. Aurrerantzean, 035 eredia esango zaio, eta foru agindu honen eranskin gisa gehitu da.

2. artikulua. 035 eredia aurkeztu behar dutenak

1. 1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretuaren IX. tituluaren XI. kapituluaren ezarritako araubide bereziak aplikatu nahi dituzten edo jada aplikatzen dituzten eta identifikazioko estatu kide gisa Espainia izendatu duten enpresaburuak edo profesionalak aurkeztuko dute 035 eredia. Bereziki, araubide hauek:

- Batasuneko araubidea.
- Inportazio araubidea, enpresaburuak edo profesionalak bitartekariak izendatu ez duenean.

2. Halaber, 035 eredia aurkeztuko dute Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretuaren IX. tituluaren XI. kapituluaren 4. atalean araututako araubide bereziaren ondorioetarako bitartekari gisa jarduten duten edo jardun nahi duten pertsonak, baldin eta Espainia identifikazioko estatu kide gisa aukeratu behar badute edo aukeratzen badute.

3. Artikulu honen aurreko apartatueta aipatutako enpresaburuak edo profesionalak eta bitartekariak identifikazioko estatu kide gisa Espainia aukeratzen dutenean aurkeztuko dute 035 eredia, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretuaren IX. tituluaren XI. kapituluaren jasotako araubide berezietan sartutako eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortzeko.

Aipatutako araubide berezietako bat baino gehiago aplikatu ahal izateko, enpresaburuak edo profesionalak Arabako Lurralde Historikoan erregistratzeko aukeratu duen araubide bakoitzeko aurkeztu beharko du 035 eredia.

4. Erregelamendu bidez ezarritako betekizunak betetzen dituzten operadoreak 035 eredia aurkeztu beharko dute bitartekari gisa erregistratzeko Arabako Lurralde Historikoan. Betekizunak betetzen dituztela frogatzeko, baldintza hauetako edozein bete beharko da:

- a) Operadore ekonomiko baimendua izatea.
- b) Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen aduana agintaritzaren txostena eskuratzea.

3. artikulua. Hasieraren aitortpena aurkezteko epeak eta haren ondorioak

1. Batasuneko araubidea aplikatzen hasiko da Espainia identifikazioko estatu kide gisa aukeratu behar duen edo aukeratzen duen enpresaburuak edo profesionalak araubide berezi horretan jasotako eragiketen hasieraren aitortpena aurkeztu eta hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunetik aurrera. Aitortpena aurkezteko, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako dagoen 035 eredia bete beharko da.

Dena den, Batasuneko araubidean jasotako ondasunen lehen entrega edo zerbitzuen lehen prestazioa 2021eko uztailaren 1etik aurrera eta aurreko paragrafoan jarritako data baino lehen gauzatzen denean, araubide berezia lehen entrega edo prestazioaren datatik aurrera aplikatuko da, betiere Espainia identifikazioko estatu gisa izendatzen duen enpresaburuak edo profesionalak beranduenik ere lehen entrega edo prestazioa egin eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunean aurkezten badu zerga administrazioan araubidea aplikatuko zaien jardueren hasierari buruzko informazioa. Informazio hori aurkezteko, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ondorio hauetarako dagoen 035 eredia bete beharko du.

2. Inportazio araubidea aplikatzen hasiko da, enpresaburuak edo profesionalak edo, hala badagokio, hura ordezkatzeko bitartekariak araubide berezian jasotako eragiketen hasieraren aitortpena 035 ereduaren bidez aurkeztu ondoren, zerga administrazioak inportazio araubidearen ondorioetarako aurreikusita dagoen operadore zenbakia (NIOSS) ematen dion egunetik aurrera. Zenbaki hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretuaren 163 septvicies. Bat artikuluan aipatutakoa da.

3. Inportazio araubidean bitartekari gisa jardun nahi duen eta Espainia identifikazioko estatu gisa aukeratu behar duen edo aukeratzen duen pertsonak edo entitateak bitartekari jardueraren hasieraren aitortpena aurkeztu beharko du, 035 ereduaren bitartez.

Zerga administrazioak bitartekari gisa identifikatzeko zenbakia (NIOSSIn) ematen dion egunetik aurrera aurkeztu ahal izango ditu pertsona edo entitate horrek aitortpenak bitartekari izendatu duten enpresaburuak edo profesionalen kontura. Zenbaki hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretuaren 163 septvicies. Bat artikuluan aipatutakoa da.

4. artikulua. Aldaketaren aitortzea aurkezteko epeak eta haren ondorioak

1. Araubide berezietako bat aukeratu duen enpresaburuak edo profesionalak edo haren bitartekariak, baldin eta identifikazioko estatu kidea Espainia bada, kasuan kasuko araubide berezian jasotako eragiketen hasieraren aitortzean adierazitako informazioan izandako edozein aldaketa aitortu beharko dio zerga administrazioari, aldaketa gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunean beranduenik ere.

2. Aldaketa egiteko, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa horretarako dagoen 035 ereduaren bete beharko da.

5. artikulua. Amaieraren aitortzea aurkezteko epeak eta haren ondorioak

1. Batasuneko araubidea aplikatzen duen eta identifikazioko estatu kidea Espainia duen enpresaburu edo profesional batek araubide berezi horietako bat erabiltzeari utzi nahi badio, nahiz eta araubide berezi horietan sartuta egon daitezkeen ondasunak entregatzen edo zerbitzuak ematen jarraitu, bere erabakiaren berri eman beharko dio zerga administrazioari, araubidea erabiltzeari utzi nahi zaion hiruhilekoaren aurreko hiruhileko naturala amaitu baino hamabost egun lehenago gutxienez.

2. Inportazio araubidea aplikatzen duen eta identifikazioko estatu kidea Espainia duen enpresaburu edo profesional batek edo, hala badagokio, haren kontura diharduen bitartekari batek araubide berezi hori erabiltzeari utzi nahi badio, nahiz eta araubide berezi horietan sartuta egon daitezkeen ondasunak entregatzen jarraitu, bere erabakiaren berri eman beharko dio zerga administrazioari, araubidea erabiltzeari utzi nahi zaion hilaren aurreko hil naturala amaitu baino hamabost egun lehenago gutxienez.

3. Identifikazioko estatu kidea Espainia duen bitartekariak, baldin eta inportazio araubidea aplikatzen duten enpresaburuaren edo profesionalaren kontura jarduteari uzten badio, bere erabakiaren berri eman beharko dio zerga administrazioari, bitartekari gisa jarduteari utzi nahi zaion hilaren aurreko hil naturala amaitu baino hamabost egun lehenago gutxienez.

4. Enpresaburu edo profesional batek edo, hala badagokio, haren kontura diharduen bitartekari batek, baldin eta haren identifikazioko estatu kidea Espainia bada, informazio honen berri eman beharko du, hurrengo hilabeteko hamargarren egunean beranduenik ere:

a) Araubide berezian jasotako jarduerak egiteari utziko dion.

b) Jarduerak aldatuko dituen, halako moldez non dagoeneko ez dituen beteko araubide berezia erabiltzeko beharrezkoak diren baldintzak. Inportazio araubidean inguruabar hori gertatzen dela ulertuko da bitartekari batek enpresaburuaren edo profesionalaren kontura jarduteari uzten dionean, besteak beste.

5. Identifikazioko estatu kidea Espainia duen bitartekari batek hala jarduteko baldintzak betetzeari uzten badio, egoera horren berri eman beharko du, aldaketa gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunean beranduenik ere.

6. Identifikazioko estatu kidea Espainia duen enpresaburu edo profesional batek edo haren bitartekariak identifikazioko estatu kidea aldatzen badu, aldaketaren berri eman beharko die eragindako bi estatu kideei, aldaketa horren berri eman beharko du aldaketa gertatu eta hurrengo hilabeteko hamargarren egunean beranduenik ere.

7. Araubide berezia uzteko aitortzea egiteko, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa horretarako dagoen 035 ereduaren bete beharko da.

6. artikulua. 035 ereduaren aurkezteko modua

035 ereduaren telematikoki aurkeztuko da nahitaez, azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat etorruta. Foru agindu horren bidez, zergapeko pertsona eta erakunde jakin batzuek zerga eredu eta eskaerak modu telematikoa, Internet bidez, aurkezteko baldintza orokorrak ezartzen dira.

7. artikulua 035 eredia aurkezteko gaikuntza

035 eredia honako hauek aurkez dezakete elektronikoki, internet bidez:

- a) Enpresaburuek edo profesionalak edo, hala badagokio, haien legezko ordezkariak.
- b) Bitartekariak edo haren legezko ordezkariak, inportazio araubidea bitartekari baten bidez erabiltzen duten edo erabili nahi duten enpresaburuak edo profesionalen kasuan.
- c) Aurrekoetako edozeinen borondatezko ordezkaria.

8. artikulua. 035 eredia aurkezteko baldintza orokorrak

035 eredia internet bidez elektronikoki aurkezteko, baldintza orokor hauek bete beharko dira:

- a) Enpresaburuak edo profesionalak, bitartekariak edo, kasua bada, aurrekoetako edozeinen borondatezko ordezkaria, identifikazio fiskaleko zenbaki bat izan beharko du.

Inportazio araubidean bitartekari baten bidez erregistratuta dauden edo erregistratu nahi duten enpresaburuak edo profesionalen kasuan, identifikazio fiskaleko zenbakirik ez badute, identifikazio kode indibidual bat izan beharko dute.

Aurkezpen elektronikoa egiteko, ziurtagiri digitala beharko da, edo, bestela, indarrean dagoen araudiarekin bat etorrira, AFaren egoitza elektronikoa sartzeko gaitzen den beste sistema bat.

- b) Aurkezpen elektronikoa egiteko, aurkezleak 035 ereduaren datuak bete eta bidali beharko ditu aurretiaz.

9. artikulua. 035 eredia aurkezteko prozedura

1. 035 eredia prozedura honi jarraituz aurkeztu behar da:

- a) Aurkezlea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora konektatuko da, 035 ereduaren aurkezpena izapidetzeko.
- b) Jarraian, aurkezleak 035 ereduaren formularioa beteko du.
- c) Aurkezleak 035 ereduaren formularioa bidaliko du, foru agindu honen 6. artikuluan ezarritako sistema erabilita.

2. Araubide berezian hasi izanaren aitortzea onartu edo ukatzeko erabakia bitarteko elektronikoz jakinaraziko da.

Hasieraren aitortzea onartuz gero, honako hau jakinaraziko da elektronikoki:

- a) Inportazio araubiderako operadore zenbakia (NIOSS), araubide horretan alta ematea erabakiz gero.
- b) Inportazio araubidean bitartekari gisa identifikatzeko zenbakia (NIOSSIn), araubide horretan bitartekari gisa alta ematea erabakiz gero.

Batasuneko araubidean hasi izanaren aitortzea onestea erabakitzen bada, araubide horretarako operadore zenbakia zerga administrazioak enpresaburuari edo profesionalari dagoeneko esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) izango da.

Bitartekari gisa arestian zehaztutako operadore edo identifikazio zenbakia egoeraren aldatuta edo amaiera aitortzeko 035 eredia aurkezteko erabili beharko da.

Xedapen gehigarria. Datu pertsonalen tratamendua

Zergapekoak bere zerga betebeharrak betetzeko emandako datu pertsonalak datu horien titularrek web atari honen bidez egindako eragiketa edo izapidetan eskatutako helburuetarako baino ez dira erabiliko. Aipatutako datuak inoiz ere ez dira tratatuko edo ez zaizkie beste batzuei lagako, ez bada datuen titularren baimen argi eta garbiarekin edo berariazkoarekin edo, baimen hori gabe, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679

(EB) Erregelamenduaren 6. eta 7. artikuluetan legez ezarritako salbuespenetan. Erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du (DBEO).

Xedapen iragankor bakarra

Foru agindu honen 6. artikuluan xedatutakoa gorabehera, salbuespen gisa eta 035 eredua telematikoki aurkezteko aukera gaituta egon arte, eredu hori aurkezteko, web helbide honetan dagoen PDF betegarria bidali ahal izango da erregistro elektronikoaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/modelo-035>.

Xedapen indargabetzailea

Foru agindu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko dira bertan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, 823/2014 Foru Agindua, abenduaren 19koa, onartzen duena 034 eredua, telekomunikazio, irrati eta telebista zerbitzuei nahiz baliabide elektronikoen bidez eskaintzen diren zerbitzuei Balio Erantsiaren gaineko Zergan aplikagarriak zaizkien araubide berezietako eragiketak hasi, aldatu edo uzteko aitorpenarena.


Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2021eko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz 2021eko abuztuaren 23a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	1. ORRIA
	HASIERA EDO ALDAKETA AITORTPENA. BATASUNEN ARAUBIDEA	035

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

1. AURKEZTEKO ARRAZOIA

Hasiera

Aldaketa

2. AITORTZAILEA

IFZ Abizenak eta izena, edo sozietate izena

Izendapen komertziala

Atzerriko egoitzaren herrialdea, EBko enpresa ez bada:

Herrialde kodea Herrialdea

Batasunaren barruko enpresa ez bada, adierazi ba ote duen BEZaren ondorioetarako establezimendu iraunkorrik Espainian Bai Ez

Entitate talde batean sartuta Adierazpena, ondasunen salmenta ahalbidetzen duen interfaze elektronikoa izateari buruzkoa Adierazpena, BEZaren ondorioetarako EBn ezarrita ez egoteari buruzkoa **3. AITORTZAILEAREN DATUAK**

Telefonoa Harremanetarako posta elektronikoa

Web orria

Helbidea: Kalea Zenbakia Blok./Ataria/Eskail. Solairua/Atea Barrutia

Hiria PK (ZIP) Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua Herrialde kod.

Harremanetarako pertsona

4. BANKU DATUAK

IBAN Bankua (BIC)


Titularra

5. IDENTIFIKAZIO HERRIALDEAREN ALDAKETA

Herrialde kodea Aurreko herrialdeko Batasuneko araubideko operadore zenbakia

6. AURREKO ERAGIKETEN KOMUNIKAZIOAEgin al duzu araubide berezian sartutako eragiketarik, edo horrelakorik egingo al duzu? Bai Ez

Baiezkoan, adierazi eragiketen hasiera data

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	2. ORRIA
	HASIERA EDO ALDAKETA AITORPENA. BATASUNEN ARaubIDEA	035

IFZ	Abizenak eta izena, edo sozietate izena
-----	---

7. EBKO BESTE HERRIALDE BATZUETAKO ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAK EDO ONDASUNEN BIDALKETA EDO GARRAIOA HASTEN DEN EBKO BESTE HERRIALDE BATZUETAKO TOKIAK


Badu establezimendu iraunkorra estatukidean <input type="checkbox"/>			
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)
Abizenak eta izena, edo sozietate izena			
Helbidea: Kalea	Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea
Barrutia	Hiria		PK (ZIP)
Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herrialde kod.
Badu establezimendu iraunkorra estatukidean <input type="checkbox"/>			
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)
Abizenak eta izena, edo sozietate izena			
Helbidea: Kalea	Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea
Barrutia	Hiria		PK (ZIP)
Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herrialde kod.
Badu establezimendu iraunkorra estatukidean <input type="checkbox"/>			
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)
Abizenak eta izena, edo sozietate izena			
Helbidea: Kalea	Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea
Barrutia	Hiria		PK (ZIP)
Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herrialde kod.

8. EBKO BESTE HERRIALDE BATZUETAN EZ-EGOILIAR BEZALA IDENTIFIKATUTA

Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia
Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia
Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia

9. LEHENAGO EDO GAUR EGUN EDOZEIN ARaubIDE BEREZITAN SARTUTA EGOTEA

Araubidea	Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia
Araubidea	Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia
Araubidea	Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	<h1>035</h1>
	AMAIERA AITORPENA. BATASUNeko ARAUBIDEA	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

1. AURKEZTEKO ARRAZOIA


Amaiera

2. AITORTZAILEA

IFZ	Abizenak eta izena, edo sozietate izena
-----	---

3. BAJAREN DATA ETA ARRAZOIA

- Araubide bereziko zerbitzuak emateari edota ondasunak entregatzeari uztea
- Identifikazioko estatukidea aldatzea. Xehetasuna:
- Borondatezkoa; gutxienez 2 urte igaro dira Espainian araubide berezian erregistratu nintzen urtea amaitu zenetik
- Espainiako establezimendu iraunkorra uzteagatik edo ondasunen bidalketa edo garraioa Espainian hasteari uzteagatik, data honetatik aurrera:
- Egoitza EBko beste estatu batera eramateagatik, data honetatik aurrera:
- Kasu horietako edozeinetan, adierazi identifikazioko estatukide berrian duzun IFZ-BEza:
- Herrialde kodea IFZ-BEza
- Araubidearen baldintzak betetzeari uztea, egoitza, establezimendu iraunkorra edo garraioaren hasierako lekua uzteagatik edo Espainiatik kanpora eramateagatik
- Borondatezkoa

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	1. ORRIA
	AITORTZAILEAREN HASIERA EDO ALDAKETA AITORTPENA. INPORTAZIO ARAUBIDEA	035

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

1. AURKEZTEKO ARRAZOIA

Hasiera

Aldaketa

2. AITORTZAILEABitartekariaren bidez jarduten da **Espainiako identifikazioa:**

Araubideko operadore zenbakia (NIOSS)

IFZ/IKI

Abizenak eta izena, edo sozietate izena

Izendapen komertziala

Egoitza herrialdeko identifikazioa (Espainia ez bada)

Herrialde kodea

Identifikazio fiskal zenbakia / IFZ-BEza

Egoitza herrialdea Espainia ez bada, adierazi ba ote duen BEZaren ondorioetarako establezimendu iraunkorrik Espainian Bai Ez **3. BITARTEKARIAREN DATUAK**

Inportazio araubideko bitartekariaren identifikazio zenbakia (NIOSSIn)

IFZ

Abizenak eta izena, edo sozietate izena

4. AITORTZAILEAREN DATUAK

Telefonoa

Harremanetarako posta elektronikoa

Web orria

Helbidea: Kalea

Zenbakia

Blok./Ataria/Eskail.

Solairua/Atea

Barrutia

Hiria

PK (ZIP)

Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua

Herrialde kod.

Harremanetarako pertsona

5. BANKU DATUAK

IBAN


Bankua (BIC)

Titularra

6. IDENTIFIKAZIO HERRIALDEAREN ALDAKETA

Herrialde kodea


Aurreko herrialdeko araubideko operadore zenbakia (NIOSS)

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	2. ORRIA
	AITORTZAILEAREN HASIERA EDO ALDAKETA AITORTPENA. INPORTAZIO ARAUBIDEA	035

IFZ	Abizenak eta izena, edo sozietate izena
-----	---

7. ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAK EBKO BESTE HERRIALDE BATZUETAN					
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)		
Abizenak eta izena, edo sozietate izena					
Helbidea: Kalea		Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea	Barrutia
Hiria	PK (ZIP)	Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herrialde kod.
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)		
Abizenak eta izena, edo sozietate izena					
Helbidea: Kalea		Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea	Barrutia
Hiria	PK (ZIP)	Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herrialde kod.
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)		
Abizenak eta izena, edo sozietate izena					
Helbidea: Kalea		Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea	Barrutia
Hiria	PK (ZIP)	Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herrialde kod.

8. LEHENAGO EDO GAUR EGUN EDOZEIN ARAUBIDE BEREZITAN SARTUTA EGOTEA		
Araubidea	Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia
Araubidea	Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia
Araubidea	Herrialde kodea	Araubideko operadore zenbakia

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	<h1>035</h1>
	AITORTZAILEAREN AMAIERA AITORTPENA. INPORTAZIO ARAUBIDEA	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

1. AURKEZTEKO ARRAZOIA

Amaiera

2. AITORTZAILEA

Bitartekariaren bidez jarduten da

2.A) Aitortzailearen identifikazioa:

Araubideko operadore zenbakia (NIOSS)

Abizenak eta izena, edo sozietate izena

2.B) Bitartekariaren identifikazioa:

Bitartekariaren identifikazio zenbakia inportazio araubidean (NIOSSin)

IFZ

Abizenak eta izena, edo sozietate izena

3. BAJAREN DATA ETA ARRAZOIA

Araubide bereziko inportazioak egiteari uztea

Identifikazioko estatukidea aldatzea. Xehetasuna:

Borondatezkoa; gutxienez 2 urte igaro dira Espainian araubide berezian erregistratu nintzen urtea amaitu zenetik

Espainiako establezimendu iraunkorra uzteagatik, data honetatik aurrera:

Egoitza EBko beste estatu batera eramateagatik, data honetatik aurrera:


Kasu horietako edozeinetan, adierazi identifikazioko estatu kide berrian duzun IFZ-BEza:

Herralde kodea IFZ-BEza

Araubidearen baldintzak betetzeari uztea, egoitza edo establezimendu iraunkorra uzteagatik edo Espainiatik kanpora eramateagatik

Bitartekariak aitortzailearen kontura jarduteari uztea

Borondatezkoa

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	1. ORRIA
	BITARTEKARIAREN HASIERA EDO ALDAKETA AITORPENA. INPORTAZIO ARAUBIDEA	035

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

1. AURKEZTEKO ARRAZOIA

Hasiera

Aldaketa

2. BITARTEKARIAREN IDENTIFIKAZIOA

Atzerriko egoitzaren herrialdea, ez bada EBko enpresa bat:

Herrialde kodea | Herrialdea

Espainiako identifikazioa:

Bitartekariaren identifikazio zenbakia (NIOSSIn) | IFZ

Abizenak eta izena, edo sozietate izena

Izendapen komertziala

 Adierazpena, operadore ekonomiko baimendua izateari buruzkoa edo bitartekari gisa jarduteko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen aduana agintaritzaren txostena izateari buruzkoa
3. BITARTEKARIAREN DATUAK

Telefonoa | Harremanetarako posta elektronikoa

Web orria

Egoitzak edo establezimendu iraunkorrak Espainian duen helbidea:

Helbidea: Kalea | Zenbakia | Blok./Ataria/Eskail. | Solairua/Atea | Barrutia


Hiria | PK (ZIP) | Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua | Herrialde kod.

Harremanetarako pertsona

4. BANKU DATUAK

IBAN | Bankua (BIC)

Titularra


 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	2. ORRIA
	BITARTEKARIAREN HASIERA EDO ALDAKETA AITORPENA. INPORTAZIO ARAUBIDEA	035

IFZ	Abizenak eta izena, edo sozietate izena
-----	---

5. ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAK EBKO BESTE HERRIALDE BATZUETAN					
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)		
Abizenak eta izena, edo sozietate izena					
Helbidea: Kalea		Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea	Barrutia
Hiria	PK (ZIP)	Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herralde kod.
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)		
Abizenak eta izena, edo sozietate izena					
Helbidea: Kalea		Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea	Barrutia
Hiria	PK (ZIP)	Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herralde kod.
IFZ-BEza ematen duen herrialdea	IFZ-BEza	Beste identifikazio fiskal bat ematen duen herrialdea	Beste identifikazio fiskal bat (ez badu IFZ-BEZik)		
Abizenak eta izena, edo sozietate izena					
Helbidea: Kalea		Zenbakia	Blok./Ataria/Eskail.	Solairua/Atea	Barrutia
Hiria	PK (ZIP)	Probintzia edo Lurralde Historikoa/ Eskualdea/ Estatua			Herralde kod.

6. IDENTIFIKAZIO HERRIALDEAREN ALDAKETA	
Herralde kodea	Aurreko herrialdean inportazio araubidean bitartekari gisa duen identifikazio zenbakia (NIOSSIn)

7. BITARTEKARIAREN AURREKO IDENTIFIKAZIOAK	
Herralde kodea	Bitartekariaren identifikazio zenbakia (NIOSSIn)
Herralde kodea	Bitartekariaren identifikazio zenbakia (NIOSSIn)
Herralde kodea	Bitartekariaren identifikazio zenbakia (NIOSSIn)

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	Eragiketen hasiera, aldaketa edo amaiera aitortpena, baldin eta eragiketa horiek jasota badaude subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo ondasunen urrutiko salmentak edo ondasunen barne entrega jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboari aplikatu beharreko araubide berezietan	<h1>035</h1>
	BITARTEKARIAREN AMAIERA AITORPENA. INPORTAZIO ARAUBIDEA	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

1. AURKEZTEKO ARRAZOIA

Amaiera

2. BITARTEKARIAREN IDENTIFIKAZIOA

Bitartekariaren identifikazio zenbakia (NIOSSIn)

IFZ

Abizenak eta izena, edo sozietate izena

3. BAJAREN DATA ETA ARRAZOIA

Bitartekari gisa jarduteari uztea

Identifikazioko estatukidea aldatzea. Xehetasuna:

Borondatezkoa; gutxienez 2 urte igaro dira Espainian araubide berezian erregistratu nintzen urtea amaitu zenetik

Espainiako establezimendu iraunkorra uzteagatik, data honetatik aurrera:

Egoitza EBko beste estatu batera eramateagatik, data honetatik aurrera:

Kasu horietako edozeinetan, adierazi identifikazioko estatukide berrian duzun IFZ-BEza:

Herrialde kodea IFZ-BEza

Bitartekari gisa jarduteko baldintzak betetzeari uztea, egoitza edo establezimendu iraunkorra Espainiatik kanpora eramateagatik edo beste arrazoi batzuegatik